



2023/2024 denboraldia

12. ZIRKULARRA

GIZONEZKO ERREGIONALEN OHOREZKO MAILAKO LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak aurtengo denboraldiko Ohorezko Erregional Mailako liga txapelketa honela antolatu du:

1. KLUB PARTAIDEAK

- 1 EIBAR S.A.D. "B"
- 2 OIARTZUN K.E.
- 3 HERNANI C.D.
- 4 ELGOIBAR C.D.
- 5 ZUMAIAKO F.T.
- 6 AMAIKAK BAT K.E.
- 7 ZARAUTZ K.E.
- 8 UROLA K.E.
- 9 BETI GAZTE K.J.K.E.
- 10 ARETXABALETA K.E. UDA
- 11 MUTRIKU F.T.
- 12 BERGARA K.E.
- 13 TOLOSA C.F.
- 14 LAGUN ONAK C.D. "B"
- 15 REAL UNION CLUB SAD "B"
- 16 UNIVERSIDAD DE DEUSTO FC
- 17 BEASAIN S.D. "B"
- 18 ORDIZIA K.E.



2. LEHIAKETA SISTEMA

Ohorezko Erregional Mailako liga txapelketa **18 taldek** osatzen dute multzo bakarrean. Fase bakarra jokatu da: puntuen bidez eta bi itzulietara (34 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federazioaren Araudi Orokorrean jasotako xedapenak jarraituko dira.

Hirugarren mailara igoko da goragoko mailako beste batekin mendekotasun- edo filialtasun-harremanik ez duen lehen sailkatua, eta hurrengo taldeak itzuli bakarreko liga bat jokatu du Araba eta Bizkaiko taldeen aurka. Fase hau 2024eko ekainaren 2, 9 eta 16an jokatu da eta txapeldunak Hirugarren Mailan jokatzeke 4. plaza eskuratuko du. Azken fasean igoera lortu ez duen lehen sailkatuak, Errege Kopan parte hartzeke aukera izango du, RFEF hala erabakitzen badu.

Azken lau sailkatuak Gorengo Mailara jaitsiko dira.

Era berean, kategoria galduko dute, nahiz eta postu horietan ez egon, azken sailkapenean jaitsi diren talde horien aurretik geratu direnak, federazio honetako taldeen kasuan gertatzen diren goragoko mailako jaitsieren ondorioz, baldin eta egoera horrek aipatutako kategorian klub gehiegi egotea badakar, kontuan hartuta 2024/25 denboraldirako Ohorezko Erregional Maila 18 taldekoa izan beharko dela.

3. IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partidak 90 minutuko iraupena izango du, bost aldaketa egin ahalko dira eta gehienez zazpi ordezko egongo dira aulkian.

4. ORDUTEGIA

Klub antolatzaileek posible izango dute euren partida larunbat arratsaldera aurreratzea, 15:30etik aurrera, aurkariaren baimenik gabe.

Partidetako arbitroen karteldegia orekatzeko asmoz, txandaka-txandaka, Ohorezko Erregional Mailako (gizonezkoena eta emakumezkoena) eta Gorengo taldeen (gizonezkoena) partida guztiak igandera eramango dira. Kategoria horiek, hain zuzen, marrazainak behar dituztenak dira.

Nahitaez igandera lekualdatuko diren partida horiek jokatzeke ordu tarte bat ezarri da, hain zuzen ere, distantzia 50 km-tik gorakoa denerako ezarrita dagoen berbera: 11:00etatik 17:30era.



Ohorezko Mailari dagozkion igandeak honako hauek dira:

- 05. jardunaldia: 2023-10-08
- 10. jardunaldia: 2023-11-05
- 14. jardunaldia: 2023-12-03
- 19. jardunaldia: 2024-01-28
- 24. jardunaldia: 2024-03-03
- 28. jardunaldia: 2024-04-14
- 32. jardunaldia: 2024-05-12

Klub bakoitzak aurrez aipaturiko jardunaldi bat aldatzeko aukera izango du, jardunaldi horretan igandea ez den beste egun batean jokatzeko, beti ere, gutxienez jardunaldi hori jokatu baina 15 egun lehenago abisatzen bada.

5. BALOI BATERATUA

2023-2024 denboralditik aurrera Gizonezkoen Ohorezko Erregional mailan, derrigorrezkoa izango da **ADIDAS TIRO LEAGUE** baloia erabiltzea.

5. DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehenik Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenik Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak.

6. XEDAPEN OROKORRA

Bere garaian Gipuzkoako Futbol Federazioaren Batzar Orokorrean honako gai hauei buruz ezarritako akordioari eusten zaio:

- 1) Ohorezko Erregional Mailan "koltxoi" kategoriaren irizpideari eustea.
- 2) Ohorezko Erregional Mailan sortzen diren plaza hutsak txandaka betetzea, hurrenkera honetan:
 - a) Gorengo Mailatik igoera lehenetsiz. Eskubide horri uko eginez gero, b) puntuarekin jarraituko da.
 - b) Ohorezko Erregional Mailatik jaitsitako ondoen sailkatu den taldea ez jaistea. Eskubide horri uko eginez gero, hurrengo puntuarekin jarraituko da.
 - c) Eta horrela, hurrenez hurren.



7. BABES OROKORRA

Zirkular honetan xedatutakoa aldatu egin daiteke denboraldian zehar ezinbesteko arrazoiengatik, eta, 2022ko ekainaren 27an Batzar Nagusiak berariaz eskuordetuta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Zuzendaritza Batzordeak izango du soilik lehiaketa gelditzea edo/eta lehiaketara itzultzea erabakitzeko eskumena, sortzen diren ezinbesteko arrazoiak kontuan hartuta; txapelketa denboraz luzatzea; lehiaketak pandemiaren amaierarekin bat etortzea, baita horrekin zerikusia duen beste edozein erabaki ere.

Zirkular honetan aurreikusitako ondorioetarako, ezinbesteko kausak egiaztatutzat joko dira lurralde jakin batean gobernu-araudi edo -agindu bat dagoenean, eta, hala badagokio, eskumena duen justiziak behar bezala abalaturik, kirol-jarduerak garatzea eragozten duenean, dela edozein mailatako entrenamenduak, dela lurralde horretan partidak jokatzea, dela muga horiek dituen alarma-estatua dekretatu izana.

Donostia, 2023ko irailaren 1a

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General